

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Durangoko Udala****Durangoko Udalaren Iruzuraren Aurkako Plana**

Abuztuaren 24ko 2022/2118 Dekretuaren bidez, honako hau ebatzi da:

Lehenengoa: Iruzuraren eta ustelkeriaren aurkako politika onartzea, honako hauek barne:

- Iruzuraren aurkako politika bat onartzea, edozein iruzur-jardueratan disuasio-eragina izango duen betetze-kultura sustatzeko, eta hura prebenitzea, hautematea, zuzentzea eta jazartzea ahalbidetuko duena, modu proportzionatuan, eraginkorrean, egokian eta denboran doituta.
- Kudeaketa-prozedurak eta kontrol-eredu bat ezartzea, EBko funtsak lortzeko eta bideratzeko espedienteen estandar etiko onenekin bat datorren izapidetze eragin-korra ziurtatuko duena, PRTn aurreikusitako helburuak betetzeko.
- Iruzuraren aurkako Koordinaziorako Zerbitzu Nazionalarekin, gainerako agintari eta erakunde publikoekin, Estatuko, autonomia-erkidegoetako edo foru-aldundietako segurtasun-kidegoekin une oro lankidetzan aritzea, eta barne-jakinazpenen bidez atzeman daitezkeen irregulartasunak edo iruzuraren eta ustelkeriaren susmoak salatzea.

Bigarrena: Iruzuraren aurkako Durangoko Udalaren neurrien plana onartzea, dekretu honekin batera doazen iruzuraren aurkako, interes-gatazkako, finantzaketa bikoitzeko eta Estatuaren laguntzetako baldintzak eta ingurumenari egindako kalte ez-adierazgarria betetzeko, berreskuratze-, eraldaketa- eta erresilientzia-plana gauzatzeko eskatzen direnak, eduki artikulatuarekin eta zortzi eranskinekin.

Hirugarrena: Planaren edukia ezagutaraztea udal-administrazioaren mendeko arlo eta erakunde guztiei, korporatiboei, langileei eta zerbitzuko langileei, beren prozeduretan eta jardueran bertan jasotako iruzuraren aurkako neurriak sar ditzaten.

Laugarrena: Plan osoa eta bere eranskinak udalaren web orrian argitaratzea.

Bosgarrena: Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, udalaren erabakiaren berri denek izan dezaten, eta udalaren web-orriaren bidez kontsulta egin dadin adieraztea <https://www.durango.eus/es>.

Durangon, 2022ko abuztuaren 24an.— Alkatea, Ima Garrastatxu Urbaneja